


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko apirilaren 23a / 670. zenbakia



BIARRIZKO BALETA

DANTZA NEOKLASIKOAREN IKUSKIZUN OSPETSUA EGINGO DUTE

ORAIN ETA HEMEN: DEPURADORA EPELEN/6 • KIROLA: JONAN EZKIBELI ELKARRIZKETA/10

ARGAZKIA: OLIVIER HOUËIX

OSASUN GIDA/24



SARRERA DOAN

Aste bukaerako plana zabal-zabalik

Zozketa

Bi lagunendako afaria
Diskoak
Kontzertuak eta antzerkia

943 71 23 93
UTZI MEZUA!

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

SARRERA DOAN
Laguntzaileak:
Bilintx, Arteaga landetxea, Jade, Gili gili

Eguenetan,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Amagoia Lasagabaster


KALEINKESTA/ EGA baiño maille bajueue daukon euskarazko bi titulo atara gura dittue.



SUSANA LUMBRERAS
Langillie



RAMONA LENTIÑO
Langillie



JUAN RAMON BALEZIAGA
Langillie



ALBERTO UGARTE
Langillie



IBAI JURADO
Ikaslie



IBAI IRASTORZA
Ikaslie

Neure ustez idea ona da, EGArako larregi eskaketan dauelako. Neu EGA ataraten ahaleginddu naz, baiñe ez dot lortu. Maille bajueue ipinttie gehixau motibauko dau.

Idea ona dala uste dot, EGAK maille altueixe daukolako. Maille bajueuko horreikin tituluokin jente gehixau animauko da euskerie ikesten, eta lana topetako samurra eukiko dau.

Neuk uste dot erabaki hori oso inportantie dala. EGAn maillara aillegetan ez die nek erdiko mailleko titulue atarateko aukerie izengo daue, eta hori oso positibue dala uste dot.

Euskaldun barrixe naz, eta badakit jente askok EGA atara barik lana topetako zailtasunek dittuela. Lanbide askotan ez da maille haundirik biher; erdiko mailliekin nahikue litzake.

Oso idea ona dala uste dot. Askok esaten daue EGAK maille altueixe daukola. Beste titulo horreikin jente gehixau animauko da euskerie ikesten, eta tituluek ataraten.

EGA ataratie ez da oso samurra, eta batzuek atarateko zailtasunek izaten dittue. Uste dot maille bajueuko tituluekin jente gehixau egingo dauela euskerie ikesteko apostue.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK APURKETA EGIN DUTE Martitzen gauean ezezagunenbake Abaroa elkarteko taberna baten leihoa apurtu egin zuen, baldosa bat botata. Leihoko kristala apurtu zuen arren, ez zen inor barrura sartu, eta ondorioz ez zuen inork lapurretarik egin. Abaroa elkarteko arduradunak oso haserre daude gertatutakoarekin, eta dagokionari eskatu diote erretiratuak bakean uzteko eta ondare publikoa ez apurtzeko.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7	KULTURA /15	ZAHARRAK /17
Bularreko minbizia	XVII. Arrasate Lehiaketak	Ibarreko jokoan finalak
Lourdes Aritzituri medikuarekin berbetan izan gara bularreko minbiziaren prebentzioaz.	Atzo, eguena, XVII. Arrasate Lehiaketan sari banaketa ekitaldia egin zuen AEDk.	Debagoieneko erretiratuen txapelketan finalak egin zituzten Abaroa elkartean.

ASTEKO DATUA

149

LAGUNEK ESKU HARTU DUTE ARRASATE LEHIAKETETAN

Atzo, eguena, egin zuten XVII. Arrasate Lehiaketan sari banaketa. AEDk antolatzen ditu lehiaketa horiek, eta harrera oso ona dute. XVII. edizioan 149 lagunek esku hartu dute lehiaketetan.

BESTEKE SANA

“ Lan esparrua euskaldundu nahi denean, bi zutabe beharrezko dira: batetik, zuzendari-tzak euskalduntze prozesua sustatu behar du, eta behar diren baliabideak jarri; bestetik, langileek aurrera eraman behar dute euskalduntze prozesua. Horrez gainera, bi kideen arteko elkarlana ezinbestekoa da (...). Euskararen normalizazioak duen oztoporik handiena da enpresaburuek euskara balio erantsitatzat ikusten ez dutela (...). Euskara planak ezarri dituzten enpresa gehienek atzerrian negozioak dituzte, eta langileek kanpo harremanetarako ingelesa erabiltzen dute. Beraz, ez dute planteatzen euskara tresna gisa erabiltzea. Enpresa horiek euskararekiko konpromisoa erakusten dute”

DANI LARREA
‘GARA’/2004-04-18

HERRITARREN BERBAK/ Amaia Martiartu



Seattletik Mondraguera

Aupa, danoi, ze moduz? Oinguen be titulue ez kanbixetie dezididu dot. Oin ez, baiñe zueik artikulo hau leiduten zabitzenerako geu Seattlen egongo gare. Agurrak alde batera itxitte, azkeneko partez dauketen obsesio bat komentau gure ditzuet.

Eguakotxero aldizkarixe jasotera-kuen, lelengo egitten dotena izeten da jaiotzen orrialdera juen. Banan-banan jaixobarrixen izenak irakurten dittut. Zertarako? Norbaiten umiek aman abizena daukon ikusteko. Bat bera be ez. “Zero, none”.

Pentsetan dot danok dakigule oin dala urte gutxi legiek aman eta aitten abizenak onarketan dittuela lelengo ipintteko. Badaezpada komentetan dot. Honek sortu dusten preokupaziñue dala eta, neuk, Amaia Martiartuk, kanpaiña bat hastie erabaki dot: “Por el cambio”.

Hau da nere proposamena: umiei aman abizena lelengo

jarten dauen bikotiei, neuk Seattletik erregalo bat bielketan konprometiduten naz. Homer Simpson-en garagardo botellen irekigallue erregalau eta bielketako prest nau. Horrek aparatu zoragarri horrek txapa zabaltzerakuen, oso sistema moderno baten bittartez kriston aupetsa botaten dau.

Kanpaiñaren lelengo fasie datoren udara arte izengo da. San Juan bezperan, erregalue jaso dauen bikotiek euren seme-alabekin eta Homer Simpson-en irekigallu magnifikuekin Herriko Plazan

elkartuko gare. Itzalan garagardo bana eskatu ostien, danok batera geure garaipena osaketako garagardue zabalduko dogu, eta herri osuen entzungo dan aupets zoragarrixe botako dogu: korrok!!!

Kontuz, abizena elegidutien, parejan artien eztabaida sortzen danien ez daille lehiaketa bihurtu. Gizartiek betidanik euki dauen injustizia baten desagerpenan hasierie izen daille. Ondo ibilli.

“Eguakotxero jaixobarrixen izenak irakurten dittut. Zertarako? Norbaiten umiek aman abizena daukon ikusteko”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Añe Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



ASTEABIHITZETAN

Etxebizitzaren prezioek gora

Etxebizitzaren prezioek gora egiten jarraitzen dute, eta altzairuaren garestitzea da horren arrazoietakoa bat. Espainiako Estatu enpresa eraikitzaile handien patronalak, Seopanek, aditzera eman dituen datuak ez dira oso itxaropentsuak etxebizitzaren erosi guran dabilzanendako.

Azken hilabeteotan altzairuaren prezioak %75 egin du gora, eta horrek eragin zuzena du etxebizitzaren prezioan. Etxebizitzaren prezioaren %35, gutxi gorabehera, eraikuntza kostuaren arabera izaten da. Horrenbestez, altzairuaren igoerak eragin zuzena izango du etxebizitzaren prezioan.

Urkuluko ura Eibarreraino

Gipuzkoako ur partzuergoa eta Eibarko Udala harremanetan dabilta, Urkuluko ura Eibarreraino eraman ahal izateko. Horrela, Urkuluko urtegiak Eibarko biztanleak urez hornituko ditu. Gipuzkoako ur partzuergoaren helburua da Eibarko ur hornidura hobetzea; horretarako, zortzi milioi eta erdi inbertsioa egingo dute.

Inbertsioaren zati handiena Urkuluko urtegia Eibarko araztegiarekin elkartzeko izango da. Gaur egun, Urkuluk zortzi udalerrri hornitzen ditu urez; horrela, Eibar izango da bederatzigarrena.

Uribarriko erretiratuendako hitzaldia

Kutxa gizarte ekintzak antolatuta, hitzaldia izan zuten egun arratsaldean Uribarriko erretiratuaren egoitzan. Berbaldiak *Istripuen prebentzioa eta norberaren zaintza* zuten izenburua, eta Ana Atienza erizaina izan zen hizlari.

Berbaldira joandakoei azaldu zien argi ibili behar dela etxean gertatzen diren istripuekin; izan ere, ezbehar gehienak kalean edo autoarekin gertatzen direla uste badugu ere, ez da horrela izaten; etxean istripu asko izaten dira.



Helduendako bidaia programa, gertu

Imerso elkarteak antolaturiko helduendako bidaia programa dagoeneko gertu dago, eta Arrasateko Udalean ireki dute izena emateko epea. 2004an eta 2005ean egingo dituzten bidaiak jasotzen ditu programak. Interesatuak Udaleko Gizarte Zerbitzuetara joan beharko dute.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Traba arkitektonikoak

Gurpil-aulkietan dabil-tzan lagunak dauzkate. Inoiz eurekin kafe bat hartzera edo film bat ikustera joan naiz. Halako hitzordu laburretan sumatu dut, bai, euren kasa ibiltzea zail samarra dela. Hainbat tabernek sarreran maila txiki bat dute, beste batzuek sarrera estuegia daukate. Eskerrak behintzat zinema areto gehienek igogailuak

eta beste baliabide batzuk dituztela.

Espaloiaren beste kontu bat da. Askok ez dute igotzeko edo jaisteko maldatxorik, eta askotan gurpil-aulkietan errepidetik joan behar izaten dute. Eurekin joaten garenean bakarrik konturatzen gara zelako zailtasunak dituzten, eta zelako ezintasuna bizi duten. Eta, egia esanda, oso gutxi aurreratu

dugu arlo horretan. Badago zer egin!

Aurrekoan lankide batek, berbaldi baten, gurpil-aulkian dabilen lagun batekin topo egin zuen. Berbaldia Monterronen izan zen, eta aretora igotzeko ez dago inolako igogailurik. Emakumea amorratuta zegoen: "Udaletxean, behintzat, badago igogailua, baina aspaldian ezin da Osoko Bilkura aretoan halakorik egin!" azaldu zuen. Badago bai, zertan hobetzen hasi!

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEK UDALETXEKO BAZTERRAK ASTINDU DITUZTE

Atzo, eguena, Gipuzkoako Batzar Nagusien berreketaren 25. urteurrena ospatu zen, eta lehena Arrasaten egin zenez, urteurrena hementxe ospatzea erabaki zuten. Udaletxea goitik behera atondu zuten, eta osoko Bilkuren aretoan jarleku gorri dotore-dotoreak ipini zituzten. Astelehenean eta martitzene-

tan dozenaka langile ibili ziren, hainbat lan egiten, berriro inauguratuko balute bezala. Horrez gain, atzo, eguena, udaletxean ez zen jendaurreko zerbitzurik egon 12:00ak arte. Eskerrak halakoak hogeita bost urtean behin gertatzen direla. A zer-nolako lana hartu behar izan duten! //I.B.

BELEN MAIZTEGI

Teleordainketa
24 orduko zerbitzua

Biteri etorbidea 13
ARRASATE
Tel.: 943 08 15 44

Xarmaz beteriko loradenda berria

LORAK

INGURUMENA/ Epeleko ur-araztegia

Epelen ur-araztegia eraikiko dute, eta Udalak dagoeneko badu aurreproiektua

UBANE MADERA

Epele inguruak dezente eraldatu dira azkenaldian autobidearen lanen eraginez. Eta aurrera begira, aldaketa gehiago ikusiko ditugu inguru hartan. Izan ere, ur-araztegia eraiki behar dute Epelen. Orain, hori egiteko aurreproiektua aurkeztu dute Udalean.


Aspaldi honetan, herriko makina bat kaletan lanak egiten ibili dira, ur zikinak batzen dituen kolektorea eraikitzeko. Modu horretan, orain arte Deba ibaira botatzen genituen zikinkeriak hodi horien bitartez batu eta herriaren kanpoaldera bideratu dituzte. Dagoeneko igartzen da orain arte baino garbitasun handiagoa Deba ibaian.

Orain, batutako ur zikin horiek guztiak garbitzeko ur-araztegia ipiniko dute Epelen. Madrilgo Gobernuaren aspaldiko asmoa da hori.

ERREPIDEA ETA ERREKA DESBIDERATU

Hala, Estatuko Ingurumen Ministerioak depuradora eraikitzeko aurreproiektua aurkeztu dio Arrasateko Udalari. Horren arabera, Epelen, Eibar-Gasteiz autobidea dela-eta, Kanpanzarrera igotzeko bidean biribilunea egingo dute; eta hain justu, biribilunearen albo bietan eraikiko dute araztegia. Nahiko eraikin handia izango da.

Lehen esandako moduan, Epelelra eramango dituzte Arrasate-



Kanpanzarrera igotzeko bidean biribilunea eraikiko dute, eta haren albo bietan ipiniko dute depuradora.

ko ur zikinak; baina baita Oñatikoak ere. Zubillagatik tunel bat egingo dute Deba ibaiaren azpitik, eta haren bitartez ekarriko dute ura Arrasateraino. Gero, ur zikinak araztegitik pasatu eta garbi-garbi aterako dira berriro ere ibaira.

Hori bai, araztegia eraikitze-ko zenbait egokitzapen lan egin

beharko dituzte. Besteak beste, GI-627 errepidea apurtxo bat desbideratu beharko dute. Baita han inguruan dagoen beste bidexka bat ere.

Horrez gainera, Deba ibaia ere desbideratu beharko dute. Ibaiaren eskumako aldean sakoneran lekua egingo diote urari, hala, industrialdeak duen uhol-

de arriskua saihestuko dute. Eta, ibaiaren ezkerreko aldean, besteak beste, bi metroko pasealeku bat egingo dute.

Hori guztia egiteko 32 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua zehaztu du Ingurumen Ministerioak. Behin lanak esleitu eta gero, 48 hilabeteko epean bukatu beharko dute guztia.

LABUR

Txus Goikoetxea presoak utzi egin du gose greba

Albaceteko kartzelan gose greba egiten zebiltzan preso politikoek —tartean Txus Goikoetxea arrasatearra— joan den egunean, hilak 15, utzi zioten protesta ekitaldiari. Presoen alde lan egiten duen Etxerat elkarteak adierazi digunez, preso politikoak hiru eskari lortzeko zebiltzan protesta egiten, eta horietatik bi lortu dituzte. Hala, orain hilean telefono dei bakarra egiteko eskubidea izan beharrean, sei dei egiteko eskubidea izango dute; eta bisitak egiten dieten hamar lagun taldea, berriz, hiru hilean behin aldatu ahal izango dute. Baina ez dute lortu Albaceteko preso politikoak modulu bakarrean batzeko eskaera. Edozelan ere, halako modulu batean binaka ipiniko dituzte, eta preso politikoak euren artean txandakatu egingo dira, binaka egoteko. Era berean, eskariak lortzeaz gain, Albaceteko presoek preso politikoekiko zuten jarra aldatu egin dutela ere esan digute. Martxoaren 11koaz geroztik, preso politikoekiko oldarkor azaldu ziren gainerakoak. Orain, aldiz, errespetuarekin tratatzen dituzte.

Txus Goikoetxeari dago-kionez, 17 kilo galdu ditu, baina gose-greba diziplinatua egin duela esan digute Etxerat elkartekoek, eta ez duela ondorio gogorregirik izango. Gainera, oso pozik eta animoso dagoela ere esan digute.

Datozen bizpahiru urteotan babes ofizialeko 600 etxebizitzatik gora

U.M.

Datozen urteotan babes ofizialeko 600 etxebizitzatik gora eraikiko dituzte Arrasaten. Bestalde, San Josepe harrobia berriro zabaltzea gura dute, ingurua berreskuratzeko lanak egiteko. Hala esan du alkateak.

Inazio Lakuntza alkatea Arrasate Irratian izan da oraingo astean, herriko zenbait konturi begiratu egiten. Hark esandakoen artean, zera nabarmentzekoa da: datozen bizpahiru urteotan babes ofizialeko 600 etxebizitza baino gehiago eraikiko dituztela. Besteak beste, Zerrajeran, Gelman, Uribarrin eta Garaia gunean eraikiko dituzte.

SAN JOSEPE HARROBIA

Horrez gainera, San Josepe harrobiaren gainean Inazio Lakuntzak adierazi zuen gai hori ez dela

bukatu. Izan ere, udalbatzarrak erabaki zuen harrobia itxi egingo zutela. Baina kontua da behin harrobia itxita han industrialdea eraiki gura dutela. Eta hori egiteko, ingurua berreskuratu egin behar dute. Berez harrobikoek eginda egin beharko lukete berreskuratze lan hori. Baina ez da hala, eta datorren martitzenean, hilak 27, itxi egingo dute San Josepe. Orain, alkateak jakinarazi digu euren nahia dela harrobia berriro zabaltzea, hain zuzen ere, berreskuratze lanok egiteko. Hala, gai hori osoko bilkuraren baten edo landuko dutela esan zigun.

OSOKO BILKUREN ARETOA

Bestalde, osoko bilkuren aretoaren erabileraren gainean ere galdetu zioten irrastian alkateari. Hain zuzen ere, galdetu zioten ea zergatik ezin duten herriko taldeek bilkuren aretoa erabili. Alkateak erantzun zuen osoko

bilkuren aretoa udaletxeko aretorik nobleena dela eta euren ustez ekintza instituzionaletarako bakarrik erabili behar dela. Gaineratu zuen herrian badirela taldeek erabiltzeko bestelako aretoak. Eta laster, kultura etxe berriarekin, gehiago izango direla. Horren harira, jakinarazi zuen kultura etxeko lanak bide onetik doazela, eta datorren urterako bukatuko dituztela.

AISSIALDIA INDARTU GURAN

Eta, bestelako gaien artean, alkateak esan zuen orain arte hutsunea egon dela herrian aisialdiari edo kultura arloari dagokionez. Eta horren ondorioz, asteburuetan herritarrek kanpora alde egiten dutela. Hori ez gertatzeko, indartu egingo dituzte aisialdiarekin lotutako ekitaldiak. Esan zigun maiatzerako, adibidez, makina bat ekitaldi antolatu dituztela dagoeneko.



Arrasate Irratian izan zen alkatea Maria Agirre lankidearen galderei erantzuten.

ELKARRIZKETA

LOURDES ARITZITURRI / GINEKOLOGOA

“Bularreko minbiziaren kasuan, prebentzioa diagnostikoan datza”

ARRASATE IRRATIA / UBANE MADERA

Emakume Txokoak apirilako antolatutako ekitaldien artean, eguaztean, hilak 21, bularreko minbiziaren gaineko hitzaldia izan zen. Donostiako Institutu Onkologikoko Lourdes Aritziturri ginekologoa izan zen hizlaria:

Bularreko minbiziaren gainean asko entzuten dugu orain; lehen ere hala zen?

Bai. Gertatzen dena da geroago eta azterketa gehiago egiten direla, emakumea sentibilizatuago dago... Uste dut kopurua gehitzea baino diagnostiko gehiago egiten ditugula, lehenago diagnostikatzen dugula gaixotasuna.

Baina badirudi orain bularreko minbiziak beldur handiago ematen digula androi...

Beldurra beti eman izan du. Bularra oso gurea da eta normalean bularreko minbiziaren aurrean aurkitzea gogorra da emakumeondako; nahiz eta gaur egun ez egin garai batean egiten ziren ebaketa handiak. Gaur egun ahaleginak egiten dira bularra erabat ez kentzeko. Dena dela, normalean inpaktu handia izaten da emakumearengan.

Beraz, aurrerapen teknikoek asko laguntzen dute...

Bai. Gehienetan garai diagnostikatzen da minbizia. Gazteen kasuan, azterketak egiten dituztelako, lehenago atzeman ahal dira. Kontuan izan gazte batek bularreko minbizia garatzen badu eta ez bada garai hartan diagnostikatzen, emakume hori konturatzeko denerako gaixotasuna askoz ere zabalduago dagoela.

Hala, prebentzioa da bide zuzena...


Minbiziaren kasuan prebentzioa da gehien balio duena. Bularreko minbiziaren kasuan, prebentzioa diagnostikoan datza, diagnostikoa lehenbailehen egitean.

Horretarako, orain dela urte batzuk Osakidetza kanpaina berezia abiarazi zuen, ezta?

Diagnostiko goiztiarra egiteko. Hau da, gaixotasuna atzeman oraindik sintomarik ez dagoenean. Horrek esan nahi du normalean emakumeak ez duela ezer nabaritu eta ukitu ere ezin izango duela ukitu. Baina mamografiaren bitartez ikus daiteke. Helburua da koskor txiki hori ahalik eta txikiena denean diagnostikatzeko. Beste prebentzio mota bat da auto-azterketa: emakumeak bere bularrak ezagutzea, noizbait aldatzekaren bat gertatuz gero, lehenbailehen konturatzeko.

Pausoz pauso joan gaitzen: gauzak horrela, Osakidetza programa garrantzitsua da...

Oso-oso garrantzitsua. 50-64



U.M.

“Osakidetza kanpaina oso-oso garrantzitsua da, diagnostiko goiztiarra egiteko”

urte bitarteko emakumeendako planteatu zen. Baina pixkanaka adina zabaltzen joango da. Horrek ez du esan nahi lehenago edo ondoren ez dagoenik bularreko minbizia izateko arriskurik. Gertatzen dena da kasu gehienak urte horietan gertatzen direla; eta mamografiak ere informazio gehiena adin inguru horretan ematen duela. Emakume gazte baten bularra askoz ere dentsuagoa da eta mamografia egiten denean ez da lortzen horrenbeste informazio. Menopausia inguruan eta ondoren, bularra aldatzen doa; glandula gutxiago dagoenez, mamografiak informazio gehiago ematen du. Mamografia ez da atsegina, baina konpentsatu egiten du. Eta adin horretan ez bagaude, komeniko

“25 urtetik gora, urtean behin joan behar da ginekologoarengana azterketa egitera”

litzateke arreta handiarekin auto-esplorazioa egitea. Noiz? Hilerokoa duen emakumeak, hilerokoa pasatu eta gero. Eta hilerokorik ez duenak, edozein egunetan, baina komeni da hilean behin egitea.

Eta, zelan egin hori?

Sinplea da. Begiratu eta ukitu egin behar da. Ez anormaltasunik bilatu nahian, baizik eta gure bularra ezagutzeko. Ispilu aurrean jarri gerritik gora biluzik eta besoak behean dituzula begiratu; gero, besoak jasota ditugula, aldaketak ikusteko. Eta begiratu nahi dugun bularren aldeko besoa altxatuta, beste eskuarekin, bizikleta baten erradioak balira bezala, bular guztia miatu; kontuan hartuta titia besapean hasten dela, titi puntaraino iritsi behar dugu.

LABUR

Europako hauteskundeetara aurkezteko plataforma sortu gura du ezker abertzaleak

Datorren ekainaren 13an, Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak izango dira. Hain zuzen ere, horietan parte hartzeko asmoa du ezker abertzaleak eta Iparraldeko eta Hegoaldeko zenbait artean, talde bat osatuko dute. Horretarako, zenbait lagunen sinadurak behar dituzte. Arrasaten udaletxeko idazkaritzan batuko dituzte sinadurok. Bestalde, *Euskal Presoak Euskal Herrira* leloarekin, Espainian eta Frantzia urrunen dauden bi kartzelak bisitatuzera joateko autobusa antolatu dute Arrasatetik. Gaur, egubakoitza, aterako da Garibaitik, eta domeka eguerdirako itzuliko dira etxera.

Babes ofizialeko etxebizitza gehiago eskatu dituzte

ARRASATE IRRATIA / UBANE MADERA

Egitamu Orokorra hizpide dugu beste behin. Izan ere, joan den apirilaren 13an bukatu zen egitasmo horri alegazioak aurkezteko epea. Aralar eta Ezker Batua alderdiek aurkeztu dituzte halako batzuk.

Bi alderdiok etxebizitzekin lotutako alegazioak aurkeztu dizkiote Egitamuari. Aralarrek, bate-tik, babes ofizialeko etxebizitza kopurua igotzea eskatu du. Uste du jendeak eros dezakeen baino etxebizitza libre gehiago saltzen direla eta erosle askok estutasun handiak izaten dituztela etxeok ordaintzeko. Gazteen kasua aipatzen du Aralarrek. Bestetik, uste du Arrasateko lurzorua oso mugatua dela eta dentsitate txikiko ahalik eta etxebizitza gutxien egin beharko lirakeela. Era berean, bestelako eskari bat ere egin du: herritarrak ez daitezela mugatu


alegazioak jartzera, geroko prozesuan ere parte har dezatela.

LURZORUA HOBETU APROBETXATU

Ezker Batuaren kasuan, uste dute Egitamuak alde on asko dituela, baina etxebizitzaren inguruan planteatzen duen politika ez dela egokia. Erabat bat dator Aralarrek aipatutako bi puntuekin. Gauzak horrela, babes ofizialeko etxebizitza gehiago eskatu dituzte eta dagoen lurzorua hobeto aprobetxatzea.

Horren harira, alkateak Arrasate Irratian erantzun zien, bate-tik, datoen urteotan babes ofizialeko 600 etxebizitza baino gehiago eraiki behar dituztela. Eta bestetik, dentsitate txikiko etxeak egin ezean, halako eskaria duten herritarrak joan egingo direla.

Dena dela, aipatutako alegazioak baino gehiago aurkeztu dizkiote Egitamuari. Hirigintza Sailak ez ditu guztiak aztertu. Hori egin ostean egingo dute aurrera.



Emakumeak eta politika, aztergai

Bizitza politikoan emakumeen eta gizonezkoen artean berdintasunik ez dagoela-eta, horren gaineko berbaldia izan zen martitzenean, hilak 20, Monterronen. ESK-k antolatu zuen. Gasteizko Udaleko berdintasunerako teknikari Reina Ruiz izan zen hizlaria. Besteak beste, esan zuen emakumeendako ahalegin handia dela politikan parte hartzea, bestelako lan ugari dituelako.

GOIKOBALU ABESBATZAKOAK GUSTURA ITZULI DIRA ITALIATIK

Goikobalu abesbatzako lagunek hamar egun egin dituzte Italian. Ondo baino hobeto ibili dira, eta gainera, uste zuten baino arrakasta handiagoa izan dute. Carraran egin zuten lehenengo saioa, eta bigarren egunean Florentziara joan ziren, turismo apur bat egitera. Handik Erromarako bidea hartu zuten, eta Italiako hiriburua ezagutzeaz gain, Vatikanon abestu zuten. Xabier Bengoaren esanetan momentu hunkigarriak bizi izan zituzten Vatikanon: "Oso berezia izan zen han abestea, hunkigarria niretako. Vatikanoko kapera garrantzitsuenetako batean abestu genuen, eta kontzertuaren ostean, San Pedro elizako parrokoa etorri zitzaigun zorionak ematera. Esan zigun urtean zehar abesbatza asko pasatzen direla Vatikanotik, eta gure emanaldia asko gustatu zitzaiola. Normala den moduan, horrek asko poztu gintuen". Vatikanotik Anconara joan ziren, eta Veneziako San Markos plazan ere abestu zuten. Han ere emanaldi ona egin zuten.



HERRIKO GAZTETXOEK BIZITASUNA EMAN ZIETEN ALTAMIRAKO JAI EI

Joan den zapatuan ospatu zituzten Altamiran auzoko jaiak, eta esan gabe doa hobeto pasa zutenak gaztetxoak izan zirela, euri zuzendutako ekintza asko egin zituzten-eta. Auzoko eta inguruetako gazte asko elkartu ziren Altamiran, eta eurena izan zen goizean goizetik jaiak bizitasuna emateko ardura. Jaiak goizean goiz hasi ziren; 10:30ean bota zituzten suziriak. Ondoren, gaztetxoendako jolasak hasi ziren. Begiak estalita zituztela makilarekin puzgarriak apurtu, bizikleta gainean zihozazela makilatxoak zintzilikatutako uztairen barruan sartu... Argazkiak ikusi besterik ez dago barre galantak egin zituztela konturatzeko. Arratsaldean, berriz, marrazki lehiaketa eta urteroko txokolate-jana egin zituzten. Horrekin batera, auzoko Asun Zorita, Nikolas Madinabeitia, Ixilda De La Calle eta Candelo Hernandez erretiratuak omendu zituzten. Ospakizunekin amaitzeko, gauean, Txinparta musika taldeak kontzertua egin zuen, eta auzotarrek ez zuten dantza egiteko aukera galdu.



SAHARAN EZIN HOBETO

Aste Santuan, Arrasateko hamaika lagun joan ziren Sahara-ra, eta Euskal Herritik 250 lagun inguru joan ziren. Mondragoetarren artean Agurne Juldain izan zen Afrikako lurralde hori ezagutzen, eta han ikusitakoaz maiteminduta etorri da. Bost egun egin zituzten Saharan, Smara eta Aiun kanpamentuetan, eta Gabonetan berriz ere itzultzeko asmoarekin etorri da. Argazkian ikusten duzuen moduan, Agurnek ez zuen arazorik izan eurretako bat izateko.



FUTBOLA

Mondrak mailaz igo gura duen Berioeren zelaian jokatu du asteburuan

Berio eta Elgoibar daude sailkapenaren lehenengo postuetan, eta bi taldeek 59na puntu dituzte

XABIER URZELAI

Elgoibar eta Berio izan dira orain arte preferente mailako talde onenak, eta bi talde horietako baten kontra jokatu du Mondrak asteburuan. Arrasateko taldeak bete du helburua, datorren denboraldian preferente mailan izango da, baina Berioendako orain hasi da benetako txapelketa.

Preferenteko txapelketa amaitzeko sei aste geratzen dira. Batzuek, hil edo biziko sei aste; beste batzuek, lasai jokatu ahal izateko eta datorren denboraldian, gaur egun berioeren kasua. Sailkapenaren bigarren postuan dago oraingo asteburu-ko Mondraren kontrarioa, eta Arrasateko jokalariek ezin motibatuko dagoen talde baten kontra jokatu dute. Horrez gainera, norgehiagoka Berioeren zelaian izango da. Joan den aste-ko eta oraingo asteburu-ko kontrarioen artean ezin da alde han-

diagoa egon. Dagoeneko erre- gional mailan dagoen Amaiak Bat taldearen kontra jokatu zuen Mondrak joan den astean (2-1), eta hirugarren mailan egoteko apustu sendoa egin duen taldearen kontra jokatu du asteburu- an. Bata, dena galdutzat eman duen taldea; eta bestea, berriz, buruan irabaztea baino ez duen taldea.

Mondrak kontuan hartu beharko du hori. Joan den aste- an Arrasatekoek izan zuten baloiaren jabetza; Amaiak Batek nahikoa lan zuen bere atea zaintzen, Mondraren ateraino hurbiltzen ibiltzeko. Oraingo gurako du, estutu egingo du, eta defendatzeaz gain, amorratzen egongo da gola egiteko; berdinketak ez du-eta ezertarako balio. Berioeren zelaian Mondrak ez du izango joan den astean beste gol aukera. Horrek esan gura du jokaldi bakoitzari errentagarritasun handiena atera behar diotela. Eta kontuan izan Berioek ez duela bat bera ere barkatuko.



AITOR LIZARRALDE

Mondrak behar baino gehiago sufritu zuen joan den astean Atxabalpen, eta oraingo asteburuan kontrario gogorra izango du.

Ointxek hirugarren postuan dagoen Tabirako izango du kontrario, etzi

X.U.

Jaitsiera faseko liderrak, Ointxe Arrasatek, hirugarren sailkatuaren kontra jokatu beharko du domekan Durango. Tabirako ez da kontrario makala, eta gainera etxean jokatu du. Hori bai, bi taldeek dagoeneko egin dituzte etxeko lanak, hortaz, gozatzeko partidua izango da.

Tabirakok badaki domekan etxetik kanpo partidu bakarria galdu duen taldea izango duela bisitan. Jaitsiera fasean Ointxek Errioxan baino ez du galdu, eta horrelako markek taldeari indarra emateaz gain, kontrarioa kikildu egiten dute. Ointxe Arrasate Saskibaloi Taldea liderra da, baina Tabirako hirugarrena da. Horrek esan gura du bi taldeetako inor ez dagoela larri, eta domekako partiduak ez duela berebiziko garrantzirik izango.

Egia esan, hemendik eta denboraldia amaitu arte Ointxek ez du norgehiagoka garrantzitsurik jokatu; baldin eta lehenengo postuan amaitzeari garrantzi handia ematen ez badiogu. Hori lor- tzeagatik, behintzat, taldeak ez du aparteko saririk jasoko. Hori bai, jaitsiera fase osoan partidu baka-



AITOR LIZARRALDE

Bost puntuko aldearekin irabazi zuen Ointxek joan den astean (83-78).

rra galdu izanak balio erantsia emango lioke Ointxek denboraldiaren bigarren zatian egindako lanari.

LEHENENGO EGONDA ERE, LARRI

Joan den astean Iturripera hurbildu ziren ikusleek ez lukete esango kantzako bi taldeak lide- rra eta azkeneko postuan zegoen taldea zirenik. Laugarren laur-

denean Ointxe Arrasatek justu- justu lortu zuen luzapena jokatze- ko beharrezkoa zuen berdinketa, eta orduan erakutsi zuen taldeak benetako maila. Urdaneta, berriz, maila galtzeko arriskuan egonda gauzak ahal bezain ondo egiteko asmoarekin etorri zen. Ointxek, baina, azken txanpan agerian utzi zuen liderra izateak ematen duen indarra.

FOTOKIROLA



Arrasate-Oñati lasterketa maiatzaren 8an

Maiatzaren 8an korrituko dute 22. Arrasate-Oñati lasterketa, eta dagoeneko ireki dute lasterketan esku hartzeko izenemate epea. Maiatzaren 5era arte egongo da izena emateko aukera, Sportland kirol dendan. Edozelan ere, lasterketaren egunean bertan ere eman ahal izango da izena. Lasterketa AED eta Laixan euskara elkarteek antolatuko dute. Hala, euskara elkarteotako bazkideek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek, berriz, 6 euro. /X.U.

DOKEA

Euripean nagusitu zen Amaika Gazte elkarteak, 26. Doke Txapelketan

Eguraldi txarrak erabat baldintzatu zuen txapelketa, baina elkarteek ez zuten kale egin, ezta sardinek ere

XABIER URZELAI

Giro ezin kaskarragoan jokatu zuten Aste Santuan 26. Doke Txapelketa. Hamabi elkarte hartu zuten esku, eta Amaika Gazte elkarteak Karmelo Amozarrain eta Gregorio Beitia izan ziren onenak. Udaleko ordezkariak ere errebaso ona eman zieten.

Egubakoitz Santuan ez zen giro Arrasaten. Antolatzaileek nahikoa lan izan zuten eguraldiari aurre egiten, eta elkarteetako ordezkari guztiek blai eginda bai, nahiz eta gura beste euri egin, Monterronera hurbildu ziren guztiendako sardinak izan ziren.

Goizeko hamarretan hasi zuten txapelketa, eta 12 talde zehenez, lehenengo, zortzi taldez osatutako multzo bat egin zuten. Multzo horretako lehenengo lau sailkatuek gainontzeko lau taldeekin beste talde bat osatu zuten. Eta, zortzi talde horiek jokatu

zuten irabazlea nor izango zen erabakitzeaz azken txanpa. Kanporaketa sistema hori egin behar izan zuten, bestela txapelketa asko luzatuko zen-eta.

AMAIIKA GAZTEKOAK ONENAK

Txapelketan hamabi elkarte hartu zuten esku, eta Amaika Gazte elkarteak ordezkariak izan ziren onenak. Egipteko elkarteak izan ziren bigarrena eta Ziar-Ola elkarte berriko ordezkariak hirugarren postua lortu zuten. Laugarrena, berriz, Makatzena elkarteak izan zuten. Partida guztiak 35 tantora jokatu zituzten, baina txapelketako ordezkariak Arrasateko Udanean, partida 25 tantora jokatzea erabaki zuten, euria bota eta bota ari zuten-eta. Partida horretan, Amaika Gazteko Amozarrainek eta Beitia Inazio Lakuntza alkaterearen eta Agustin Ugarte zinegotziaren kontra jokatu zuten. Eta esan beharra dago Udaleko ordezkariak oraindik ere asko daukatela hobetzeko, Amozarrain eta Beitia 25-13 nagusitu ziren-eta.



Egubakoitz Santuan dokean jokatu zuten elkarteetako ordezkariak mela-mela eginda amaitu zuten txapelketa.

Besaidek mendizeharko eski irteera antolatu du datorren astebururako

X.U.

Eski estazioek dagoeneko itxi dituzte ateak, baina Pirinioetan orain ere gura beste elur dago. Hori aprobetxatuz, Besaide Mendi Elkarteak mendizeharko eskia egiteko irteera antolatu du datorren astebururako (maiatzak 1 eta 2).

Aspaldi ez da sasoi honetan horrenbeste elur egon Pirinioetan. Eski estazioetan oraindik ere gura beste elur dago, eta egoera onean, gainera. Estazioek, baina, ateak itxi behar izan dituzte, ezin dute-eta denboraldia gura beste luzatu. Mendizeharko eskia egiten dutenek, berriz, ez dute horrelako arazorik, eta datozen asteotan ere eskiatzen jarraitu ahal izango dute.

PIC DE MULLERES-ERA

Besaide Mendi Elkarteak mendizeharko eskiko hainbat irteera antolatu ditu, eta oraindik ere horretan dabil. Hain zuzen ere, datorren asteburuan Pic de Mulleres-era joateko irteera antolatu du. Pic de Mulleres Araneke ibarrean dago, Anetotik oso gertu. Irteera horretan izena emateko aukera datorren martitzenean, hilak 27, edo eguaztenean, hilak



ARRASATE PRESS

Pirinioetan gura beste elur dago, Aste Santuan elurra egin du-eta.


28, izango da. Horretarako, interesa dutenek Besaideren egoitzara joan beharko dute, 19:30etik 20:30era bitartean.

IRTEEREK ERANTZUN ONA

Besaidek antolatu dituen mendi irteerek erantzun ona izan dute aurtan ere. Mendiko eskia egite-

ko Formigalera egindako irteerak beti izan dira arrakastatsuak, baina azkenaldian jende askok hartu du esku mendizeharko eskiko irteeretan. Horrez gain, aurtan, Besaidekoak iraupen eskia egitera ere animatu dira, eta gustura geratu ziren Somport-era egindako irteerarekin.

FOTOKIROLA



Gipuzkoako Birako etapa, domekan

Oraingo domekan egingo dute Besaide Mendizale Elkarteak lagunek Gipuzkoako Birako bigarren etapa. Arrasateko autobus geltokian elkartuko dira, 07:30ean, eta autobusa hartuko dute Kanpanzarreraino igotzeko. Han hasiko dute ibilbidea, eta Elgetarako bidea hartuko dute. Intxortaraino joan, eta Aixolatik Ermuaraino jaitsiko dira. Lau ordu eta erdi inguruko ibilbidea da, eta itzulerako autobusa 14:30ean izango dute Ermuan bertan. /X.U.

DANTZA/ Biarrizko baletaren ikuskizuna

Biarrizko baletak dantza neoklasikoaren ikuskizun zabala eskainiko du, bihar

IKER BARANDIARAN

Debagoieneko Mankomunitateak *Iparraldea bertan* ekimena antolatu du. Horren bitartez, *Iparraldea ezagutzera* emango dute ibarrean. Apirilaren 24an, Biarrizko baletak *Errusiako baletari omenaldia* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian.

Debagoieneko Mankomunitateak, *Iparraldea bertan* leloa daukan ekimenaren bitartez, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako kultura sortzaileen lana, musika, ideiak... gurera, Debagoienara, ekartzea du helburu. *Iparraldea bertan* kultura hamabostaldia da. Apirilaren 21ean hasi zen eta maiatzaren 2an bukatuko da. 100.000 pertsona ikintza da, eta herri guztietan izango da ekitaldiren bat. Mankomunitateak 27.000 euroko aurrekontua onartu du horretarako.

EKITALDI MORDOA

Apirilaren 21etik maiatzaren 2ra bitartean, hainbat ekitaldi egingo dituzte: euskal kantuaren gaineko erakusketa, *Iparraldeko literaturaren* gaineko kontakizun-musika emanaldia, Bidaia musika taldea, umeendako antzerkia, dantza ikastaroa, Erramun Martikorenaren eta Anje Duhalderen emankizunak, eta abar. Ekitaldi horiek Oñatin, Leintz Gatzagan, Elgetan, Ber-

garan, Aretxabaletan, Eskoriaztan, Antzuolan eta Arrasaten egingo dituzte, hain zuzen ere.

Arrasateri dagokionez, bihar, zapatua, Biarrizko baletak *Errusiako baletari omenaldia* ikuskizuna egingo du Amaian. 20:00etan izango da, eta sarrera 10 euro da. Astean hainbat sarrera saldu dituzte, baina egunean bertan ere izango dira eskuragai Amaia Udal Antzokiko txarteldegian.

OSPE HANDIKO BALET TALDEA

Errusiako baletari omenaldia ikuskizunak ospe handia dauka. Europako antzoki garrantzitsuetan egin dute, eta dantza neoklasiko moduan definitu dute. Dantza klasikoaren oinarria duen arren, modernoagoa da, eta hainbat koreografia batzen ditu bere baitan. Hainbat zati dauzka, eta tartean atsedena egingo dute. Guztira, ikuskizunak ordu eta erdi irauten du.

Horietako batek *Arrosaren mamua* izena dauka. Hamar bat minutu irauten du, eta bi dantzari esku hartuko dute. Musika Carl Maria Weberrena da, eta koreografia Thierry Malandainena. Lan hori Tamara Karsavinak eta Vaslav Nijinskik sortu zuten 1911n, Michel Fokinen koreografia baten oinarrituta. Neska gazte bat agertuko da eskuetan arrosa duela. Lorearen usaina arnastuko du eta butakara eroriko da, eta lo gelditu. Ametsean, arrosaren mamua ikusiko du,



OLIVIER HOUËX

Punta-puntako dantzariak dantza klasikoan dinarritutako ikuskizun modernoak eskainiko dute.

mamuak neska hartu eta lilurazko dantza baten hartuko du. Neska gaztea nahasturik esnatuko da, ingurura begiratu, eta arrosa bakarrik ikusiko du.

Beste lan bat *Boleroa* da. Musika Maurice Ravelena da, eta koreografia Thierry Malandainena. 15 minutu irauten du, eta hamabi

dantzari esku hartuko dute. *Bole- roa* Ida Rubinstein dantzariarentzat sortu zuten, 1928an. Jatorrizko koreografia Bronislava Nijinskak egin zuen. Hasierako istorioa Andaluziako taberna baten kokatuta zegoen. Emakumezko ijito batek mahai baten gainean dantza egingo du, eta ingu-

ruan dituen gizonezkoen artean sentsualitatea piztuko du. Biarrizko baletak erabat aldatu du hasierako istorioa. Ravelen musika-partiturari lehenetsua eman dio. Hamabi dantzari batera dantza eginez, "askatasunak ematen duen atseginarene metafora" irudikatuko dute.

Udal Liburutegiak Liburuaren Eguna ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu

I.B.

Gaur, egubakoitza, Liburuaren Eguna da. Horregatik, Udal Liburutegiak egitarau zabala antolatu du. Irakurketaren gaineko erakusketa ipini dute, eta beste hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Urtero moduan, Arrasateko Udal Liburutegiak egitarau zabala antolatu du Liburuaren Eguna ospatzeko. Apirilaren 19tik 30era *Imágenes para leer* izeneko erakusketa ikusi ahal izango da Monterronen, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Salamancako German Sanchez Ruperez fundazioak egindako erakusketa ibiltaria da. 44 lan batzen ditu, eta hainbat ilustratzaile, diseinatzaile eta grafistak irakurketaren gainean duten ikuspegi propioa irudikatu dute. Eta, bide batez, erakusketa horren helburua da ikusle-

ak eta oro har herritarrak irakurtzera gonbidatzea.

Horrez gain, Udal Liburutegiak beste hainbat ekitaldi antolatu ditu: besteak beste, astelehenean, apirilaren 26an, Alaitz Murok eta Agurtzane Villatek *Baobab: ipuin afrikarrak* izeneko ipuin kontaketa-ikuskizuna egingo dute. Santa Marinako ludotekan izango da, 18:00etan.

IPUIN KONTALARIK ERE BAI

Eguaztenean, apirilaren 28an, eta eguenean, apirilaren 29an, ohiko literatura solasaldiak egingo dituzte Monterronen. Eguaztenean, Kresmann Taylorren *Ezezaguna helbide honetan* eta Michael Quinten *Lorategiak bel-durgarriak* liburuen gainean arituko dira. Eta eguenean, Monterronen batutakoek Ian McEwan idazlearen *Expiación* liburua izango dute hizpide. Eguenean, apirilaren 29an, Egoitz Lasak

ipuinak kontaktuko ditu Santa Marinako ludotekan, 17:00etan. Ikuskizun hori, batez ere, 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago.

Horrez guztiaz gainera, eguenerako, apirilaren 29rako, *Zaharregia, txikiagia agian* ikuskizuna antolatu dute Amaia Udal Antzokian. Arratsaldeko zortzietan izango da.

LIBURU HONDATUEN FERIA

Irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko ekimen horiek guztiak birbiltzeko, urtero moduan Arrasateko Udal Liburutegiak apaletan dauzkan hainbat liburu zahar batu eta liburutegiko bazkideek har ditzaten eskuragai ipini ditu.

Hain zuzen ere, apirilaren 19tik 30era arte liburutegiko bazkide bakoitzak bi liburu zahar opari hartu ahal izango ditu. Horretarako, liburutegira joan beharra dago liburuok hartzera.



GOIATZ ARANA

Irakurketaren gaineko erakusketa interesgarria ipini dute Monterronen.



GAZTELUPEKO HOTSAK

Laukote horrek ikuskizun ospetsu horren azkeneneko saioak ematen dihardu.

MUSIKA ETA POESIA/ Kirmen Uribe, Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabal

'Zaharregia, txikiegia agian' ikuskizuna, Amaia antzokian

IKER BARANDIARAN

Eguenean, apirilaren 29an, Udal Liburutegiak eta Udaleko Kultura Sailak *Zaharregia, txikiegia agian* ikuskizuna ekarriko dute Amaia Udal Antzokira. 20:00etan izango da eta Mikel Urdangarin, Kirmen Uribe, Bingen Mendizabal eta Rafa Ruedak esku hartuko dute.

Udal Liburutegiak, Liburuaren Eguna ospatzeko ekitaldien barruan, *Zaharregia, txikiegia agian* ikuskizuna ekarriko du Arrasatera. Eguenean izango da, apirilaren 29an, Amaia Udal Antzokian, 20:00etan.

Zaharregia, txikiegia agian poesia, kantua eta marrazkiak elkartzen dituen disko-liburua da. Lan horretan honako lagunek esku hartu dute: Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabalek, Rafa Ruedak eta Mikel Valverde.

Zaharregia, txikiegia agian izeneko egitasmoak eraman zituen Kirmen Uribe idazle ondarrutarra eta Mikel Urdangarin musikari zornotzarra New York hirira 2003ko udaberrian. Sei saio egin zituzten han, New Yorkeko beste horrenbeste areto esanguratsutan, poesia eta musika uztartuz. Beste bi musikari izan zituzten bidelagun: Bingen Mendizabal —hainbat filmetako musikaren sortzailea— biolina

jotzen eta Rafa Rueda —Pilt taldeko abeslaria— gitarra elektrikoarekin. Biratxo horretan arrakasta handia izan zuten, eta besteak beste, *The New Yorker*-eta *Open City* aldizkari ezagunek horren berri eman zuten. Bidaia horren ostean, Euskal Herrira bueltatu eta disko-liburua argitaratu zuten.

EUSKARA, BIZI IZATEKO MODU BAT

Lanaren izena Kirmen Uribe euskararen gainean eginiko poema batetik hartu zuten. Hau da Kirmen Uribe zabaldu gura duen mezua: "Euskara, Euskal Herria,

Disko-liburua eta ikuskizuna egiteko ideia New Yorkera egindako bidaiaren erabaki zuten

Britainia Handiko idazleak batzen dituen PEN klubak "interes bereziko lana" izendatu du

agian, zaharregia, txikiegia dela gaur egungo garaietarako, baina, azken batean, euskaldunok munduari begiratzeko modu jakin bat eskaintzen dugu, bizi izateko eta sentitzeko modu bat".

AZKENEKO IKUSKIZUNAK

Euskal Herrian hainbat eta hainbat ikuskizun egin dituzte, eta egunean Arrasaten egingo dutena azkenetarikoa izango da. Hala iragarri digute.

Literatura, musika eta irudiak uztartuz, gaur egun ditugun kezka plazaratuko dituzte. Azken batean, kulturaren hainbat arlotan lanean dabiltzan bost euskal sortzaile dira.

Disko-liburuan, 140 orrialde-tan Kirmenek New Yorkerako pentsatutakoak eta gero grabaketa egiteko idatzitako olerkiak erabili ditu. Hiru hizkuntzatan —euskara, gaztelania eta ingelesa— agertzen dira poesiak, eta Mikel Valverde marrazkilariak olerki bakoitzerako ilustrazio bana egin du.

Zuzenean, hauek osatzen dute taldea: Kirmen Uribe, errezititzen; Mikel Urdangarin, abesten eta gitarra jotzen; Rafa Ruedak, gitarra jotzen; eta Bingen Mendizabalek, biolina jotzen.

Astean, Britainia Handiko idazleak batzen dituen PEN klubak "interes bereziko lana" izendatu du *Zaharregia, txikiegia agian* disko-liburua.

Atzo, Arrasate Lehiaketan sari banaketa egin zuen AEDk

I.B.

Atzo, eguna, AEDk XVII. Arrasate Lehiaketan sari banaketa egin zuen Monterronen. Sariak banatu ostean, ekitaldia bukatzeko, Jone Sagasta arrasatearrak poesia errezitatu egin zuen.

Atzo, eguna, AEDk XVII. Arrasate Lehiaketan sariak banatu zituen Monterronen. Maider Arregik eta Mikel Aranburuk aurkeztu zuten ekitaldia. Bukarera, Jone Sagastak poesia errezitatu zuen.

Poesian, 1990ean edo ostean jaiotako lehenengo saria Oihane Garciak eta Deiane Galdosek jaso dute. Bigarrena, berriz, Maialen Linazasorok. 1988 eta 1989 artean jaiotako artean, lehenengo saria Jone Sagastak eskuratu du. Eta bi bigarren sari eman dituzte: Onintza Langarani eta Ariana Albarinori, hain jaiotako artean, bi lehenengo sari eman dituzte: Iban Gonzalezi eta Asier Osinagari.

Ipuinetan, 1991n jaiotako artean, Oihane Urtzelaik eskuratu zuen lehenengo saria, eta bigarrena hutsik gelditu da. 1990ean jaiotako artean, Iban

Aparicio izan da txapelduna, eta Oihane Zabala txapeldunordea. 1988 eta 1989 bitartean jaiotako en kasuan, bi lehenengo sari eman dituzte: Jone Sagastari eta Beñat Barberenari. 1987 aurretik jaiotakoei dagokien, Ahinize Errasti izan da irabazlea, eta Hasier Eraña irabazleordea.

Berto paperetan, 1990ean edo urte horren ostean jaiotako artean lehenengo saria Olatz Ezpeleta eta Nekane Castellanos jaso dute. Bigarrena, berriz, Amaia Sanchezek. 1988 eta 1989 bitartean jaiotakoei dagokien, bigarren saria Julen Agirianok eskuratu du, eta lehenengo hutsik utzi dute. 1987an edo aurretik jaiotako artean, lehenengo eta bigarren sariak hutsik gelditu dira, baina epaimahaia sari berezia eman dio Ander Lizarralderi.

Komikietan, 1990ean edo ostean jaiotako artean, Iratxe Arreffena Marta Garciak eskuratu du. 1988 eta 1989 artean jaiotakoei dagokien, bi bigarren sari eman dituzte: Unai Pagaldai eta Manex Ruseri eta Iraitz Guridi eta Sara Romerori. Lehena, Danel Irriarteri eman diote. 1987an edo aurretik jaiotako artean, Unai Azkaratek lehenengo saria hartu zuen.

Bi komedia emango dituzte Amaia Udal Antzokian

I.B.

Datozen egunetan bi komedia emango dituzte Amaia Udal Antzokian: Batetik, astelehenean, *Bajo el sol de la Toscana*; eta bestetik, datorren egubakoitzean, apirilaren 30ean, *The station agent (Vías cruzadas)*.

Datorren astean bi film emango dituzte Amaia Udal Antzokian: astelehenean, apirilaren 26an, *Bajo el sol de la Toscana* komedia emango dute. 113 minutu irauten du, eta Audrey Wells zuzendariak egin du. Protagonistak

Diane Lane (*Última sospecha, Infiel...*) eta Raoul Bova (*El protector*) dira. Idazle batek, deprimututa, Toscanara joko du, eta han, bizimodua alaituko dioten lagun batzuk ezagutuko ditu.

PERTSONAIA BITXIEN HARREMANAK

Datorren egubakoitzean, apirilaren 30ean, *The Station agent (Vías cruzadas)* filma emango dute zineklubean. 88 minutu irauten du, eta Thomas MacCarthy zuzendariak egin du.

Tren geltoki baten bizi diren hiru pertsonaiaren harreman azalduko digute.



The Station Agent

The station agent (Vías cruzadas) filmak oso kritika onak jaso ditu.

E, TXO!

GUREGAIK/ EGIN EMAKUMEEN EKINTZAK

Ekin Emakumeak Elkarateak hainbat ikastaro antolatu ditu

IKER BARANDIARAN

Ekin Emakumeak Elkarateak hainbat ikastaro eta tailer antolatu ditu apiril bukaeratik ekainera bitartera. Besteak beste, eskulanak, defentsa pertsonala, sukaldaritza eta orratz lanak jorratuko dituzte.

Arrasateko emakumeak ekimentsuak dira, eta Ekin Emakumeak Elkarateak bada horretan zerikusirik. Aste Santuko oportunitate bueltan, apiril bukaeratik ekainera artean egiteko hainbat ikastaro eta tailer antolatu ditu.

Apirilaren 20tik ekainaren 15era bitartean, eskulan ikastaroa egingo dute. Mila Akizu izango da irakaslea, eta martitzenero egingo dute, 15:30etik 17:30era eta 18:00etatik 20:00etara. Besteak beste, egurra, laminak, margolanak, birziklatzea, eztainua, zilarra, beruna eta kristala landuko dituzte.

Maiatzaren lehen, 8an eta 15ean, defentsa pertsonal ikastaroa egingo dute, 11:00etatik 13:00etara. Horren bitartez ikasiko dute indarkeria egoera aurrean zelan babestu. Elkaratean (Pablo Uranga, 4) egingo dute, eta doan izango da.



Ekin Emakumeak Elkaratean adin guztietako lagunek esku hartzen dute.

ARTXIBOA

MAILA ERTAINEKO SUKALDARITZA
Maiatzaren 3tik 24ra maila ertaineko sukaldaritza ikastaroa egingo dute, 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroa gutxi edo zerbait dakiten lagunei zuzenduta dago, eta lehen platera, bigarrena eta postrea egiten ikasiko dute. Apiri-

laren 26a aurretik eman beharko da izena.

Apirilaren 22tik ekainaren 17ra bitartean, eguenero, orratz lanen tailerra egingo dute, 15:00etatik 17:00etara. Puntua, kakorratza, bainika eta gurutze puntua landuko dituzte.

Baina dena ez da ikastea, eta bidaia bat egin gura dute. Maiatzaren 29tik 30era Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa bisitatuko dituzte. Txango horretara joan gura duenak maiatzaren 7a aurretik eman beharko du izena Ekin elkaratearen egoitzan.

UDALEKUETARAKO BEGIRALE BILA DABIL TXATXILIPURDI

Txatxilipurdi 2004ko udalekuen prestaketa lanak egiten dabil. Interesa dutenek Txatxilipurdiko egoitzara (Pablo Uranga, 4) eraman beharko dituzte curriculum, argazki bat, NAREN kopia eta begirale edo zuzendari titulua. Izena emateko azkeneko eguna da apirilaren 26a, astelehena. Derrigorrezkoa izango da 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea eta, horrez gain, Txatxilipurdik antolatzen dituen eragile prestakuntza saioetan esku hartzea.

GAZTETXEAREN URTEURRENEKO EKINTZAK

Gaztetxearen urteurreneko egitarauak aurrera jarraitzen du, eta datozen egunetan ere egongo da zer ikusi eta zer entzun: gaur, egubakoitza, Monty Python-en film eta esketxak emango dituzte, 19:00etan. Tartean, afaltzeko atsedena egingo dute. Bihar, zapatua, pintxo eta sagardo dastatzea egingo dute, 11:30ean. Etzi, domeka, *La mosca gao* izeneko antzezlanaren egingo dute, 18:30ean. Datorren eguenean, apirilaren 29an, Elgoibarko gaztetxearen gaineko bideoa eta berbaldia izango dira. Maiatzera arte iraungo du egitarauak.

'LARUNBLAI' EGINGO DUTE HERRIKO PLAZAN

Bihar, zapatua, Txatxilipurdi elkarateak *Larunblai* ekimena egingo du HERRIKO PLAZAN. 11:00etatik 13:30era, maskarak egingo dituzte.

SANTA MARINAKO LUDOTEKAREN JAIA

Datorren egubakoitzean, apirilaren 30ean, Santa Marinako ludoteka jaiak egingo dute. 17:30etik 19:30era, ikuskizunak eta beste hainbat ekintza.

Txatxilipurdik webgunea estreinatu du

I.B.

Umeen eta gazteen aisialdian lan egiten duen Txatxilipurdi euskara elkarateak webgunea estreinatu du. Honako helbidea dauka: www.txatxilipurdi.com. Webgune osatua eta koloretsua da oso.

Txatxilipurdi elkarateak ibilbide luzea egin du umeen eta gazteen aisialdiaren esparruan lanean, eta hori guztia Interneten era-

kusteko webgunea sortu du. Honako helbidea dauka: www.txatxilipurdi.com.

KULTURA ZERBITZUAK BANAN-BANAN
Webguneak informazio zabala eskaintzen du. Besteak beste, elkarateak eskaintzen dituen kultura zerbitzuak (Txikilandia, Eguzkilaru, jaialdiak...); eta Umeen Sailak kudeatzen dituen zerbitzuak (Ludoteka, Eskola orduz kanpoko zerbitzuak, Umeen udalekuak, Jostailu erakusketak...).

Aisialdia eta Eskola izeneko proiektuak ere badu bere garrantzia, baita elkarateko Gazteen Sailak ere. Azken horrek, besteak beste, gazte txokoak, Txatxiar-tistak eta gazte udalekuak antolatzen ditu.

ELKARTEAREN IZAERA ETA HELBURUAK
Horrekin guztiorrekin batera, Txatxilipurdik webgune horretan azpimarratu egin gura izan ditu elkaratearen historia eta esperientzia, elkaratea zelan osatuta

dagoen, eta baita hastapenetatik oinarriztat izan dituen helburu nagusiak ere.

Esan beharra dago txatxilipurdi.com oso webgune dinamikoa eta koloretsua dela, elkaratea bera bezala. Edukiak oso argiak dira, eta norbera bila dabilena oso erraz aurki daiteke.

Elkaratearekin harremanetan jarri gura duenak e-postaren bitartez ere egin dezake, honako helbidera idatzita: idezkaritza@txatxilipurdi.com

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA
Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

BEHEKODENDATIK

Alberto Uribarren

AIDE GAS ENPRESA

XABIER URZELAI

Alberto Aramaixon jaixo zan, Mondraguen bizi da eta Aretxabaletan egitten dau lan. Baiñe, berak esaten dauen moduen, hara eta hona ibiltten da lanien. 1991n sortu euen Auri izeneko enpresie, gero Aide Gas billakatu zana. Orduen hasi zien gas sarie herrixetan ipintten, eta aukerie aprobetxau euen.

Ze falta jako Mondragueri?

Ez naz oso futbolzalie, baiñe hirugarren maillan egongo litzaiken futbol taldie biher dau Mondraguek.

Eta, ze dauko ona?

Lagun artien egoteko giro politte egoten dala herrixen.

Ze falta jatzu zeuri?

Nobixie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Osasune.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

Erromatarren pelikula zahararak gustetan jat neuri / *Don Quijote de la Mancha* / Musika klasi-kue gustetan jat.

Momentu honetan nora juengo zitzake gustora?

Brasilera.

Egitten dozun etzeko lan gorrotagarrixena.

Plantxie.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinekin?

Tranpan ibiltteko parejie biher, eta neuk ez dauket holakorik.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Langille onak.

Denbora librien ze egitten dozu?

Deportie egin, eta biajau.

Kapritxo bat.

Lehen Brasilera juengo nitza-keela esan dot, baiñe Andietara bia-jetie be...

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Mendiko txabola baten, lagun artien.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSEN?

Mondragueko lanak daguene-



X.U.

"Etxien ondo egoteko klimatizadorie biherrezkue da; akordau zelako udie euki gauen"

ko bukatute dauzela, eta horrez gain pakien bizi geikeela.

Ze lan egitten dozue Aide Gasen?

Jeneralien gas instalaziñuek ipintten dittugu. Horreik konpondu, mantentze lanak egin... Horrez gain, kalefaziñuek, klimatizadoriek...

Etxien klimatizadoriek bai, ala hau ez da Andaluzia?

Bai, bai, etxien ondo egoteko klimatizadorie ondo etorten da. Neguen kalefaziñue daukogu, baiñe udan? Gaiñera, ikusi juen zan urtien zelako beruek egin zittuen.

Gasakin ondiokan be egoten die disgustuek. Ze energia mota da seguruena?

"Energia haundixe konzentretan danien egoten da peligrue, eta hori da kontrolau biher dana"

Energia alternatibuek seguruek die, bestiek baiñe kantidade txikiñauetan egoten dielako. Azkenien, energia asko konzentretan danien peligrue haundixae izeten da, eta hori da ondo kontrolau biher dana.

Eta, efektibuena?

Neuk uste dot gasa oso energia efektibue dala. Elektrizidadiak pasetan jakona da bidien inddar haundixe galtzen dauela.

Eta, ekonomikuena?

Momentu honetan gasa baitta be. Posible da energia alternatibuek ekonomikuek izetie, baiñe horreik instalau egin biher die, eta instalaziñue garestixe da. Hori da gasak daukon bentajie.

NIREBIDAIAHURA/ Gorka Ortiz de Mendibil

Finlandiara / 2004ko apirilean

Gorkak ez du askorik pentsatu behar izan Finlandiara egindako bidaia kontatzeko, handik etorri berri harrapatu dugu-eta. Ondo aprobetxatu ditu oporrak; hamabost egun egin ditu Finlandian. Neskalaguna bisitatzeko asmoarekin joan zen Gorka Finlandiara. Han, baina, ez du galdu aukera gora eta behera ibiltzeko: "Lehenengo egunak Helsinkin egin genituen. Neskalagunaz gain lagun bat daukat Finlandian, eta hark erakutsi zigun hiri-burua. Hiri polita da Helsinki, garbia. Hori bai, arratsaldeko lauretan kalean giro aparta izaten zen, baina seietan bakarrik geratzen ginen".



"Elur-oreinek tiratutako leretan bidaiatu genuen"

Asteburua Helsinkin egin eta gero, Gorkak eta neskalagunak Kokkolorako bidea hartu zuten: "Neskalagunak han ikasten du, iparraldean dagoen herri bat da, kostaldean. Neskalagunaren gurasoak ere bisitan joan ziren, eta hurrengo astea eurekin igaro genuen". Eta ondo aprobetxatutako astea izan zen: "Kokkolotik Raviemira joan ginen. Bungalow moduko batzuk alokatu genituen, sauna eta guzti, eta astebete egin genuen han. Lehenengo egunean elur-oreinek tiratutako leran bidaiatu genuen. Santa Clausen herri-raino joan ginen, eta baita berarekin egon ere. Ezin genion argazkirik atera; horretarako argazkilarik bat zekuten, eta 13 euro ordaindu behar zen argazki bakoitzeko. Santa Clausen herria ez zitzaidan beste munduko gauza iruditatu, baina parajea polita zen. Horrez gain, egunero ez dugu elur-oreinekin bidaiatzeko aukera izaten".

Hurrengo egunean eskiatzera joan ziren: "Alokaturako bungalowak eski pisten ondoan genituen, baina gu ez ginen pistetara joan, iraupen eskia egin genuen-eta. Errekak izoztuta zeuden, eta erreka gainean ibili ginen eskiatzen. Gainera, jendea arrantzan zebilen; izotzetan zuloa egin eta arrantzan". Datorren astean, besteak beste, itsasoan igeri egin zueneko kontakutako dizuegu; izotz artean igeri. Hori ere ez da egunero egiten.

XABIER URZELAI



Gorka elur-orein batekin.

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

Gorka
Ileapaindegia
peluqueria

Orduetgia:
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferreries 35 - 943 77 13 78

ZAHARREN ETXETIK



Besteak beste, briska txapelketako finala egin zuten.



Gipuzkoako erretiratuen presidenteak eta presidenteordeak esku hartu zuten.

LABUR

Apurketa egin dute Abaroa elkarteko tabernan

Martitzen gauean ezezagun batek baldosa bat bota zuen Abaroa elkarteko tabernako leiho batera. Leihoa hondatu egin zuen, baina ez zen inor elkarte barrura sartu, eta ez du inork lapurretarik egin.

Abaroako elkarteko arduradunak haserre daude gertatutakoarekin.

Bihar, zapatua, 1961eko kintoen eguna izango da

Bihar, zapatua, 1961eko kintoek egun berezia izango dute. 1940an jaiotako gizonek urteko bilkura egingo dute.

12:30ean, belaunaldi horretako hildakoen aldeko meza egingo dute San Juan Bataiatzailearen elizan. Horren ostean, Amaika Gazte elkartearen bazkaria egingo dute.

Maiatzaren 22an, 1936an jaiotako emakumeen bilkura

Maiatzaren 22an, 1936an jaiotako emakumeek urteko bilkura egingo dute. 13:00etan meza egingo dute San Juan Bataiatzailearen elizan. Horren ostean, bazkaria egingo dute Musakola hostalean.

Interesatuek eman izena Murumendiaraz gozotegian, eta 10 euro ordaindu.

Atzegik, lehen sorospenen gaineko berbaldia

Astelehenean, apirilaren 26an, Atzegik lehen sorospenen gaineko berbaldia egingo du Monterronen, 18:30ean.

Hizlariak Yrma Ayerra —Atzegiko gurasoen taldekoa— eta Arantxa Belastegi —tratamendu zentroko psikologoa— izango dira. Zenbait aholku emango dituzte.

Debagoieneko erretiratuen txapelketen finalak jokatu zituzten Abaroa elkartearen

IKER BARANDIARAN

Aste Santuko oporren aurretik, apirilaren 7an, Abaroa elkartearen Debagoieneko erretiratuen txapelketen finalak jokatu zituzten. Bergarako, Arrasateko, Aretxabaletako, Antzuolako eta Oñatiko erretiratuak lehiatu ziren. Hori baino lehenago, martxoan, ibarreko erretiratuen elkarte gehienetan txapelketak egin zituzten, eta Abaroan ibarreko herri bakoitzeko ordezkariak irabazleak batu ziren.

Bazkalostean hasi eta ia iluntzera arte izan ziren jokoan erretiratuak: xakean, billarrean, briskan, dominoan, musean, seien jokoan, tutean, igelaren jokoan eta toka jokoan, besteak beste. Zortzi erregeko museko finalak egin zuen denbora luzean, eta final horrek jakin-min handia piztu zuen; Arrasateko Uribarri elkarteko Damaso Sanchezek eta Pedro Polvorinosek eta Oñatiko Pake-

lekuko Miguel Albizuk eta Segundo Ugartek jendez inguratuta jokatu behar izan zuten.

Horren ostean, Gipuzkoako erretiratuen presidente Miguel Rubiok eta presidenteorde Javier Ormaetxeak sariak banatu zituzten, eta parte-hartzaile guztiek askaria egin zuten. Gipuzkoako erretiratuen batzarrak kristalezko domina bereziak eraman zituen, eta ibarreko erretiratu sukaldariak tortilla goxoak prestatu zituzten. Txapelketa-jaiak luze egin zuten, eta ibarreko erretiratu mordoak egun ederra igaro zuten jokoan.

IBARREKO TXAPELDUNAK

Honako hauek dira Debagoieneko irabazleak, ibarra ordezkariak: xakean, Bergarako San Josepe elkarteko Antolin Marchena; billarrean, Bergarako San Josepeko Gabriel Medina; briskan, Antzuolako Dorotea Azkargorta eta Dolores Saiz; dominoan, Aretxabaletako Basotxo elkarteko Jose Mari Polo eta Eduardo Magallanes; musean lau erregetara, Oñatiko Pake-leku elkarteko Fermin Zubia eta Felix Arananza; musean zortzi erregetara, Arrasateko Uribarri elkarteko Damaso Sanchez eta

Pedro Polvorinos; puntuan, Antzuolako Antonio Larrea eta Luis Mari Jauregi; seien jokoan, Oñatiko Pake-leku Maria Luisa Zubia eta Ana Maria Chacon; tutean, Oñatiko Pake-leku Antonio eta Jacinto Zabaleta; igelaren jokoan, Bergarako San Josepe elkarteko Jesus Ruiz de Azua; eta toka jokoan, Bergarako San Josepe elkarteko Marcos Labaien, hain zuzen ere.

HURRENGOA, LEGAZPIN

Aipatutako lagun horiek guztiek ordezkariak izango dira apirilaren 29an (eguna) Legazpiko Ustintegi elkartearen jokatu duten finalerdian. Debagoieneko erretiratuak Zumarraga inguruko eskualdeko erretiratuen aurka lehiatuko dira. Eta Legazpiko txapelketan garaile irteten diren erretiratuek Gipuzkoako finala jokatu dute, Donostian. Ea, bada, ibarreko erretiratuek sari bat ekartzen duten Donostiatik bueltan!

Ibarreko herrietako ordezkariak lehiatu ziren, Debagoiena ordezkatzeko asmoarekin

Apirilaren 29an hurrengo norgehiagoka jokatu dute Legazpiko elkartearen

Advertisement for EGUZKIGRAF, a printing company. It features a logo with a stylized 'E' and 'G' and the text 'KOOP. E. S.COOP.'. Below the logo, it says 'EGUZKIGRAF imprimategia'. To the right, there is a photograph of a modern building. At the bottom, it provides the address 'Industrialdea F-0-4 ARETXABALETA' and contact information: 'Tfnoa: 791844' and 'Faxa: 792941'.

Advertisement for LAKET Diesel. It features the LAKET logo in a stylized font. Below the logo, it says 'Bonaventure Diesel Pepe Levis'. At the bottom, it provides the address 'Otalora z/g Behea ARRASATE' and the phone number 'Tel.: 943 79 11 72'.

Advertisement for PUB HAIZEA. It features the text 'PUB HAIZEA' in a large, bold, stylized font. To the right, there is a cartoon illustration of a man sitting at a table in a pub, with a small figure of a mouse or rat nearby. The word 'arrasate' is written below the illustration.



ARRASATE
Aitor Murgiondo
Apirilaren 25ean, 3 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARETXABALETA
Naroa Etxebarria
Apirilaren 26an, urtebete.
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Markel Benito
Apirilaren 11n, 3 urte.
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Ekaitz Lopez
Apirilaren 21ean, 18 urte.
Zorionak, bitxo! Klaseko *Compañera*-ren partetik.



ARRASATE
Jon Zabaleta
Apirilaren 22an, 16 urte.
Zorionak! Aitaitaren eta amamaren partetik.



ARRASATE
Maitane Balanzategi
Apirilaren 15ean, 13 urte.
Zorionak! Koadrilako partetik.



ARRASATE
Eneida Felix
Apirilaren 28an, 11 urte.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Enrike Uriarren
Apirilaren 25ean, urtebete.
Zorionak! Arreben partetik.



ARRASATE
Fani Garai
Apirilaren 25ean, 90 urte.
Zorionak! Iloben partetik.



ARRASATE
Amets Ormaetxea
Apirilaren 14an, 7 urte.
Zorionak, panpoxa! Aita-txo, amaxo eta Ibai.



ARRASATE
Saioa B. de Guevara
Apirilaren 18an, 29 urte.
Zorionak, guapa! Koadrilako partetik.



ARRASATE
Peru Atxa
Apirilaren 19an, 3 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Iñigo Azkoaga
Apirilaren 11n, urtebete.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Fertz Rodriguez
Apirilaren 14an, urtebete.
Zorionak! Etxeko eta lagun partetik.



ARRASATE
Soraia Iglesias
Apirilaren 15ean, urtebete.
Zorionak! Ramon, Aitor eta Josu.



ARRASATE
Hodei Beitia
Apirilaren 16an, urtebete.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Cesar Azkarate
Apirilaren 17an, urtebete.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Jesus Beitia
Apirilaren 17an, urtebete.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Rafa Mungia
Apirilaren 20an, urtebete.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Leire Aperribai
20an, urtebete. Zorionak! EKINeko koadrilaren partetik.



ARRASATE
Igor Urrea
Apirilaren 9an, 5 urte. Zorionak! Familiako partetik.



ARAMAIO
Bingen Lopez
Apirilaren 24an, 13 urte.
Zorionak! Aita, ama eta Ander.



ARRASATE
Jon Balzategi
Apirilaren 14an, 25 urte.
Urte askotarako, *Poti!* Koadrilakoak.



ARRASATE
Urtzi Amiano
Apirilaren 21ean, 25 urte.
Zorionak, *Action...* Koadrilakoak.




ARAMAIO
Jon Beitia
Apirilaren 22an, 7 urte.
Zorionak! Mikel, aita eta ama.



ARRASATE
Aitzol Auzmendi
Apirilaren 22an, 21 urte.
Zorionak, gaztetxeko idazkari *kaskarrabiasa!*



ARRASATE
Xabi Campo
Apirilaren 26an, 21 urte.
Zorionak! Aretxabaletako miresleen partetik: Salsal



ARRASATE
Amaia Pombar
Apirilaren 16an, 21 urte.
Zorionak, *bolitxe!* Gora dieta eta dietatarrak!



ARRASATE
Eneritz Garasa
Apirilaren 23an, 22 urte.
Zorionak! Kafe bat zortetan. Iza eta Mai.



ARRASATE
Felipe Garay
Apirilaren 11n, 21 urte.
Zorionak! Koadrilako partetik.



ARRASATE
Maria Algaba
Apirilaren 24an, urtebete.
Zorionak! Nubi elkar-tea, familia eta lagunak.



ARRASATE
Ainara Errasti
Apirilaren 20an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Irune Loza
Apirilaren 13an, 7 urte.
Zorionak! Gurasoak eta osaba-izebak.



ARRASATE
Ane Astondoa
Apirilaren 21ean, 6 urte.
Zorionak! Gurasoak eta gainerako senide guztiak.



ARRASATE
Roberto Sancho
Apirilaren 23an, urtebete.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Sergio Azkarate
Apirilaren 29an, 29 urte.
Zorionak, *Kokaliso!* Lankideak.




ARETXABALETA
Amagoia Lasagabaster
Apirilaren 19an, 27 urte.
Zorionak, *sorgintxo!* Lankideak.



ONATI
Aritz Bernaluze
Apirilaren 27an, 4 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Goizeder Uribe
Apirilaren 21ean, urtebete.
Zorionak! Etxekoak eta lagunak.



ARRASATE
Jose Luis Ezkurva
Apirilaren 25ean, urtebete.
Zorionak! Etxekoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barnean agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



Zela deitzen da argazkian ikusten duzuen kalea?
Arrastoa: Musakola Hostala gertu-gertu dago, baina beste kale batean.

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Bonka kafea

Ehoa, naturala edo nahasketa 250g

1,17€ 196 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARCELINA ZUBIZARRETArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Marcelina!

Galderen erantzun zuzena:

Zaldibarren.

ARTXIBOA

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko futbola 1942tik 1966ra (I)

'PEQUEÑA HISTORIA DEL...' / J. LETONA

Arrasateko futbolak aldaketak izan zituen 1942an. Besteak beste, Juventud Deportiva de Mondragon izeneko klubak sortu zutelako. Jose Aiala izan zen klubaren aurreneko presidentea eta Alvaro Oregi presidenteordea.

Juventud Deportivakoek kamiseta zuri-morearekin eta praka beltzekin jokatzen zuten. Maalako zelaietan jokatzen zituzten partiduetan, eta gaur egun Elkarro denda dagoen lekuan zituzten aldagelak, Maala kalean bertan. Normalean, partidutik buelta bi zatitan egiten zuten; izan ere, Maalako zubitik pasatu behar zutela aprobetxatu eta jokalariek gehienak Aramaio errekan dutsatzen ziren.

Bestelako gertaerak aipatze arren, 1942-43an, Gipuzkoako Kopa irabazi zuen Juventud Deportiva, honako jokalariekin: Urreta, Herrasti, Heriz, Castor, Cano, Aranburu, Baltzategi, Arregi, Vitoria eta Sologaitsoarekin. Entrenatzailea Juanito Madinabeitia Moxolo zen eta masajista Benjamin Pereira. Hurrengo denboraldian ligako txapelketa izan zen.

Sasoi hartan, marrazain profesional barik jokatzen zuten, eta



1942tik aurrera Juventud Deportiva Mondragon taldeko jokalariek izan zirenetako batzuk.

'PEQUEÑA HISTORIA DEL FÚTBOL EN MONDRAGÓN'

zale boluntarioek egiten zuten lan hori.

Bestalde, sasoi hartan iritsi zitzaion Juventud Deportivari Maalako zelaitik joateko ordua; jakina, zelai berria behar zuten aurrera egiteko. Eta hori lortzeko dirua batzeko ekimen ugari

1945etik aurrera emaitza politik lortu zituen Juventud Deportiva taldeak

egin zituzten. Adibidez, herriko jaiak aprobetxatu eta boxeo eta bertsolaritzako saioak antolatu zituzten. Hala, hiruzpalau urtean, zelai berria eraikitzeko 100.000 pezeta batzea lortu zuten. Diru asko zen hori orduan. Pentsa, industrian, lehen mailako ofizial

batek egunean 35 pezeta irabazten zituen. Zelaia erosteko abala sinatu zuten herriko zenbait enpresarekin eta gidaritza talde bat sortu zuten herriko zenbaitekin. Eta, Iturripeko zelaia eraikitzea lortu zuten; 1945eko ekainaren 24an inauguratu zuten, Arrasaten Artzapezpikutzaren Kongresu Eukaristikoa izan zen egun berean. Bitxikeria moduan, Iturripeko markagailua estreinatu zuen lehena Pedro Sologaitsoa Laso izan zen.

Hurrengo denboraldian emaitza politik eskuratu zituen Juventud Deportiva. Adibidez, 1948-49an, zenbait garaipen lortzeaz gain, Mondrak Espainiako Amateurren Txapelketako finaldira iristea lortu zuen. Eta hurrengo denboraldian, preferente mailan txapelketa izan zen eta amateurren txapelketan eskualdeko txapelketa. Antzerako emaitzak lortzen segitu zuen 1952-53ra arte. Hirugarren mailan sartu zen Juventud Deportiva. Berarekin batera beste 17 taldek jokatu zuten maila berean, tartean, Eibar taldeak. Urte hartan bertan lortu zuen Eibar taldeak bigarren mailara igotzea.

Mondrari dagokionez, hirugarren mailan segitu zuen 1954-55 denboraldira arte.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko apirilaren 23a / 105. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Domekan aukeratuko dute aurtengo bertsolari txapeladuna

UBANE MADERA

Orduak besterik ez dira falta aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketako finalerako. Eguaztenean, hilak 21, aurkeztu zuten ekitaldia Gasteizen. Hantxe izan ziren lehiaketan parte hartuko duten bertsolariak, artean, Manex Agirre, irabazteko gogo handiarekin.

Aramaioko eta Laudioko finalerdietan puntuazio altuena lortu zuten sei bertsolarietako parte hartuko dute domekako saioan: Asier Otamendik, Oihane Pereak, Ruben Sanchezek, Juan Mari Juaristik, Iñaki Viñasprek eta, jakina, Manex Agirrek. 17:30ean hasiko da saioa, Gasteizko Printzipal antzokian. Sarrerak aurrez eros daitezke, baina, hala egin ezean, bertan ere egongo dira saltzen, sei euroren truke; bazkideek eta 16 urtetik beherakoek hiru euro ordaindu beharko dute.

Naroa Sasietak aurkeztuko du saioa. Eta epaimahaia honako hauek osatuko dute: Patxi Aizpuruak, Xabier Ormaetxek, Mirari Azulak eta Felix Irazustabarranak. Idazkari lanetan, berriz, Karmele Madinabeitia ibiliko da.

Manex Agirrek Goiena Tebistari adierazitakoaren arabera,



JULEN IRIONDO

Finalean parte hartuko duten bertsolariak aurkeztu zuten domekako saioa.

aurten, irabazteko gogo handiarekin doa finalera.

Bestalde, eta txapelketari orokorrean begiratuta, antolatzailea, Arabako Bertsozale Elkartea, pozik dago aurtengo edizioarekin. Eguazteneko prentsaurrekoan esandakoaren arabera, inoiz baino parte-hartze handiagoa izan dute, guztira, 23 bertsolari; hala, aurten, Araban izaten diren bertsolari txapelketen eta sariketen

historiako marka haustea lortu dute. Gainera, adinari begira, oso parte-hartze gaztea izan da, 20 urtekoa, batez beste. Era berean, esan beharra dago emakumeen parte-hartzea zabala eta beste herrialde batzuetan baino altuagoa izan dela: zazpi emakume. Eta lekuei begiratuta, aurten hautsi egin da Gasteizen urtetako monopolioa, eta eskualdeek ordezkartza handia izan dute.

Elbarrituta dauden adineko pertsonendako programa

UBANE MADERA

Elbarrituta dauden adineko pertsonak aldi baterako egoitzan egoteko programa abiarazi dute. Uztailean, abuztuan eta irailean parte hartzeko eskakarak apirilaren 30a baino lehen egin behar dira.

Zenbait baldintza bete behar dira aipatutako programan parte hartzeko: 60 urte beteta izatea; Arabako egoiliarra izatea eta lurralde historikoko erroldan sartuta egotea eskaera aurkeztu baino hiru urte lehenagotik, gutxienez; elbarritasun larriren bat izatea, eta horren ondorioz beste pertsona baten laguntza beharrezkoa izatea

eguneroko bizimodua egiteko, egin den eskariak Adineko Arloko Baliztatze Batzordearen aldeko txostena izatea.

ESKABIDEAK EGITEKO EPEA

Lehen aipatu dugun moduan, adineko elbarriendako programan parte hartu nahi dutenek datorren apirilaren 30a baino lehen egin beharko dute eskaera. Kontua da aipatutako hilabete horietarako bestetan baino eskaera gehiago izaten direla. Bestela, beste edozein hilabetetarako urte osoan egin daiteke eskaera. Informazio gehiago behar duenak Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzura beharko du.

LABUR

Zenbait gazte Udalak ezarritako baldintzak onartu, eta gazte lokaletan sartu dira

Zabaldutuzte kultura etxeko gazte lokalak. Oporretan sartu zuten gazteak, eta dagoeneko egin dute hango lokalen banaketa, adinaz arabera. Udalarekin hitzartutako moduan, 14-20 urte bitarteko gazteak sartu dira lokaletan. Laster aurkeztuko diote partaideen zerrenda Udalari. Era berean, Udalarekin hitzartutako ordutegi-muga errespetatuko dute, baldintza horrekin sartu dira-eta. Lokaletan egin beharreko lanen gainean, berriz, Mertxe Mondragonek adierazi dituzte atzeratu egin direla, gazteek lokaletan sartzeko presa zuten-eta.

Egun berezia Bizente Goikoetxea musikariarengatik


U.M.

Guztia gertu dute Aramaion Bizente Goikoetxea musikariaren jaiotzaren urteurreneko omenaldia egiteko. Eguerdian izango dira ekitaldi gehienak. Horien tartean, kontzertua da nabarmenezkoa.

Eguerdiko mezaren ostean izango da kontzertua, 12:45ean, Aramaioko parrokan. Hiru abesbatzak parte hartuko dute, guztiak ere Bizente Goikoetxearen lana goraiatuko dute eta haren konposizioetako batzuk interpretatuko dituzte. Hala, Aramaiotik, Bizente Goikoetxea Abesbatzak

parte hartuko du, Martin Arana-ren zuzendaritzapean. Gero, Bizente Goikoetxeak Valladolideko unibertsitatearekin izan zuen harreman estuaren adierazle, hango abesbatzak kantaldia eskainiko du, Jose Martin Gonzalez zuzendaritzapean. Eta bukatzeko, Gasteizko Araba abesbatzaren txanda izango da, Aitor Saez de Kortazarrek zuzenduta eta Sabin Salaberriaren organo musikak gidatuta.

Kontzertu horren ostean, Bizente Goikoetxea gogora arazteko plaka bat erakutsiko dute. Elizpean ipini dute plaka hori oraingo astean. Bukatzeko, bazkaria egingo dute, Iturrietan.



'Korapiloak' eskultura Bañeran

Ipini dute Bañera parkean Korapiloak izeneko eskultura. Miguel S. Etxeberria eskulturagile gipuzkoarrak egindakoa da, Caja Vital Fundazioak antolatutako eskultura lehiaketaren barruan. Edozelan ere, oraindik ez dituzte hango lan guztiak bukatu. Batetik, eskultura ipintzeko lekuz aldatu zuten kale argia lehengo lekura bueltatu beharko dute. Eta bestetik, eskultura ipintzeko erabilitako makinak zapal dutako belarra-eta txukundu egin beharko dituzte.

ERRETRATUZAHARRA

Emakumeak
fabriketan jo
eta su

Joan den mendeari begiratuko diogu oraingoan gure argazki zaharraren bitartez. Hain zuzen ere, Espainiako gerra garaiko eta osteko kontuak izango ditugu berberak.

Sasoi hartan, fabriketako langile beharra langile kopurua baino handiagoa zen. Izan ere, urte haietan, gerraren eraginez, nabarmen murriztu zen gizonezkoen eskulana. Horren ondorioz, gazteak eta emakumeak hasi ziren haien lekua betetzen. Arrasateko enpresen kasuan, emakume asko hasi zen lanean, neskame lana utzita, neskame lanean gutxiago irabazten zuten-eta. Edozelan ere, emakume gehienek utzi egiten zioten fabrikako lanari ezkondu eta gero.

40-50eko hamarkadan Arrasaten zegoen fabrika inportanteenetarikoak Union Cerrajera zen. Han lan egiten zuten emakumeak dira guk aukeratu-tako argazki zaharreen agertzen direnak. 40ko hamarkada zen, eta Maria Elortzaren ezkon aurreko agurra ospatzeko elkartu ziren.



Honako hauek agertzen dira, goian, ezkerretik eskumara: Maria Elortzaren ahizpa, ezezaguna, Pilar Garai, Felicitas Romero, Francisca Askasibar, Maria Paunero, Laura Ortuoste eta Nieves Aranbarri. Erdiko ilaran, ezkerretik eskumara: Emeteria Eraña,

Teofila Maidagan, ezezaguna, Eugenia, Maria Elortza, Maria Etxebarrieta, Meltxora Vitoria, Victoria Albistegi eta Clara Maritxalar. Eta beheko ilaran, ezkerretik eskumara: aurreko hirurak ezezagunak dira, mutikoa, berriz, Alfonso Otadui da, haren

ondoan Visi Guridi dago eta azkeneko emakumea Nieves Otadui da.

Argazkia eta informazioa: Arrasate, langileek eraikitako herria liburua.

Urtea: 40ko hamarkada.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Olarke kalean
espaloia
zegoeneko

Olarke kalea oinezkoendako jarrita dago gaur egun; zati bat bai, behintzat. Olarte kaleko peatonalizazio lanak Seber Altubeko lanekin batera egin zituzten, orain dela bost urte inguru. Lehen, noranzko bakarreko errepidea zegoen Olarten. Orain, alde zaharreko bizilagunak eta dendak dituztenak bakarrik sartu ahal dira autoarekin Olarte kalera.



≈ 1990 Argazki zahar hori Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek atera zuten orain dela 14 urte.



2004 Oinezkoendako zatia Arbolapetan hasten da, eta handik hasi eta Maalako Errabaleraino egin zituzten lanak.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711767

Arrasate Irratia


Beti airean.

24 ORDU ETENGABE EMITITZEN



PARTE HARTU IRRATIAN

Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16
- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22